

Joxe Etxabe Udabe Bitarte

*Zumaia,
Gipuzkoa
(1926-2009)*

Aurkibidea

Biografia



Zumaiako Bitarte baserrian jaio zen 1926. urtean, Narrondo auzoan. Baserriko lanez gain, arotza izan zen Zumaian hainbat urtez. Gaztetan Zumaiako traineruan ere ibili zen. Bi elkarrizketa egin zitzaizkion: bata 2005ean Zumaiako toponimia jasotzeko; eta bestea 2008an herriko hizkera biltzeko. Azken horretan, bere emaztea ([Ana Aristondo](#), 1928) eta koinata ([Miren Azpeitia](#), 1930) ere azaltzen dira.

Zintak

ZUM-040

- **Proiektua:** Zumaiako toponimia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Azkue Ibarbia, Xabier
- **Data:** 2005-01-01
- **Iraupena:** 40 min
- **Euskarria:** CD
- **Emalea:** Azkue Ibarbia, Xabier

ZUM-056

- **Proiektua:** Zumaiako hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2008-05-07
- **Iraupena:** 45 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Narrondoren administrazio-egoera

- **Erref:** ZUM-056/002
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:02:02. **Bukatu:** 00:04:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

<p>Miren jaio zeneko etxeari buruz, Narrondori buruz, hitz egiten dute: Arroan dago, baina Zestoari dagokio. Hala ere, Zumaiarako joera gehiago du bertako jendeak. Narrondo bi udalen artean dagoenez, ez dago argi zer ardura duen bakoitzak. Eliza Arroan dute eta medikua Zumaian; baina badira Zestoara jotzen dutenak ere.</p>

2. Garai bateko Narrondo

- **Erref:** ZUM-056/003
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:04:24. **Bukatu:** 00:06:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

<p>Narrondo duela 50-60 urte nolakoa zen azaltzen dute: zer denda eta baserri zeuden.</p>

3. Lehenengo taberna

- **Erref:** ZUM-056/007
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:09:37. **Bukatu:** 00:10:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Beren gazte garaian, Arroan ez zegoen tabernarik. Lehenengo taberna jarri zenekoa kontatzen dute.</p>

4. Eskolara nora

- **Erref:** ZUM-056/008
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:10:38. **Bukatu:** 00:11:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolarik ere ez zegoen Narrondon: Arroara edo Zumaiara joaten ziren. Anak Itziarren ikasi zuen, Elorrin. Eskola hura gogorra zela esaten du. Gaur egungo hezkuntzari buruzko iritzia ematen dute. Bi emakumeek batera hitz egiten dute.

5. Eskolako kontuak

- **Erref:** ZUM-056/009
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:11:36. **Bukatu:** 00:13:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Joxek maristetan ikasi zuen, eta hango maisuak gogorrak ziren. Arroako eskolan, ordea, bi neskazahar zeuden, eta erlijioa erakusten zuten gehienbat. Arroa Behean zegoen eskola. Anaren maistra Basarri bertsolariaren garai bateko andregaia izan zen; eskola hartan turbina zeukaten, eta Xabiartxo liburua erabiltzen zuten (euskaraz zegoen hura idatzita).</p>

6. San Kristobal jaiak

- **Erref:** ZUM-056/012
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:14:55. **Bukatu:** 00:16:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>San Kristobal festak ospatzen dira Narrondon, uztailaren 10ean. Zergatik aukeratu zuten Kristobal santua, eta nola lortu zuten haren eskultura eskuratzea azaltzen du Anak.</p>

7. Mendiko harria autobusera

- **Erref:** ZUM-056/014
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:17:05. **Bukatu:** 00:18:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

<p>Errepide ondoko mendian, harria mugitu eta "La Guipuzcoanako" autobus baten barrura sartu zenekoa kontatzen du Joxek.</p>

8. Garai bateko erromeriak

- **Erref:** ZUM-056/022
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:24:08. **Bukatu:** 00:25:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Joxe dantzari ona zen. Erromeriak non izaten ziren aipatzen du Joxek, baina gehienetan Arroara joaten ziren; San Lorentera San Lorente egunean bakarrik. Lehen hobe izaten zen erromeria hura. Neska-laguntzeak egiteko izaten ziren onak erromeriak.</p>

9. Familia Gernikara eta anaia soldadu

- **Erref:** ZUM-056/031
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:33:55. **Bukatu:** 00:34:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

<p>Joxeren familia Gernikara bidali zuten gerran. Anaia zaharra karlistek hartu zuten soldadu, eta beste guztiek alde egin behar izan zuten Gernikara, Foruara. Han beldur handia pasa zuten.</p>

10. Kontxako estropadak

- **Erref:** ZUM-056/036
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:43:19. **Bukatu:** 00:45:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak

Laburpena:

Kontxara bi urtetan joan ziren: haietako batean oso itsaso txarra zegoen, eta itotzeko zorian egon ziren. Urte hartan Sestaok irabazi zuen; beraiek 3. edo 4. gelditu ziren. Donostiara kamioian joaten ziren denak: arraunlariak eta trainerua. Estropadak orain bezala izaten ziren.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-04-06

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com